

Información sobre admisión: gestiones.egibide.org
Onarpenaren informazioa: gestiones.egibide.org



Calendario para la matrícula en formación profesional PRESENCIAL curso 2017/18 BERTARATZE modalitateko Lanbide Heziketan onartzeko eta matrikulatzeko egutegia (2017/18 ikasturtea)

Para **alumnado repetidor o promocionado** a 2º curso: Período ordinario de matrícula del 12 de junio a 3 de julio, ambos inclusive.

Ikastetxe berean **maila errepikatzen dutenek edota 1. mailatik 2. mailara pasatzen direnek** ekainaren 12tik uztailaren 3ra, biak barne, egin beharko dute matrikula.

Para el resto de alumnado:

Gainontzeko ikaslerientzat:

- **Entrega de solicitudes y documentación:**
 - en persona, del 5 al 16 de junio de 2017, ambos inclusive.
 - [ONLINE](#) hasta el 15 de junio.

- **Eskabideak eta dokumentazioaren aurkezpena:**
 - Ikastetxean bertan ekainaren 5etik ekainaren 16ra arte, biak barne.
 - [ONLINE](#) eskabideak, ekainaren 15era arte.

www.hezkuntza.net

www.hezkuntza.net



Admisión. Formación Profesional. Curso académico 2017-2018



Admisión. Formación Profesional. Curso académico 2017-2018

- Entrega del expediente académico o del certificado de aptitud en la prueba de acceso, en el caso de no haber realizado dicha prueba en la convocatoria del año 2017 de la Comunidad Autónoma del País Vasco: hasta 30 de junio.
- Listas provisionales de admitidos: 6 de julio
- Reclamación a las listas: hasta el 7 de julio inclusive.
- Listas definitivas: 13 de julio
- **Período de matrícula de alumnado admitido:** Desde el 13 al 19 de julio, ambos inclusive.

- Eskatzailearen espediente akademikoa edota sarrera-proba gaintitu izanaren ziurtagiria –proba hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko deialdian egin ez bada– aurkezteko: ekainaren 30era arte.
- Behin-behineko zerrendak: uztailaren 6a.
- Zerrendeireklamazioak: uztailaren 7ra arte, barne.
- Behin betiko zerrendak: uztailaren 13a.
- **Onartutako ikasleen matrikula egiteko aldia:** uztailaren 13ik 19ra, biak barne

LOS TRÁMITES QUE SE REALICEN EN UN CENTRO DOCENTE HAN DE HACERSE EN EL HORARIO DE APERTURA DE SECRETARÍA DEL CENTRO.

IKASTETXE BATEAN EGINDAKO IZAPIDEAK BERTAKO IDAZKARITZA IREKITA DAGOEN ORDUTEGIAN EGIN BEHARKO DIRA.

Las personas que hayan sido admitidas en el proceso, así como aquellas que no tuvieran obligación de participar en el mismo, (alumnado que repite curso o que promociona de curso), deberán formalizar su matrícula en las fechas señaladas en el calendario establecido. En el caso de no hacerlo se considerará que renuncian a cualquier plaza a la que pudieran tener derecho

Prozesuan onartutako ikasleek eta prozesu horretan parte hartu behar ez dutenek (maila errepikatzen dutenek edota 1. mailatik 2. mailara pasatzen diren ikasleek) egutegian zehaztutako egunetan egin beharko dute matrikula. Bestela, esleitutako plazari uko egin diotela ulertuko da.

Proceso de Adjudicación de Plazas en Ciclos Formativos de FP LHko Heziketa-Zikloetako Plazak Esleitzeko Prozesua

1.- Siempre que cumpla con los requisitos en cada caso exigidos, podrá solicitar todas las plazas escolares y centros docentes que desee, dentro de las fechas establecidas para ello. [Calendario 2017](#).

1.- Kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak betez gero, nahi dituen plazak eta ikastetxeak eskatu ahal izango ditu, horretarako ezarritako daten barruan. [2017ko egutegia](#)

2.- En el caso de que solicite más de una plaza en el mismo centro o en distintos centros, cada petición se relacionará en la solicitud por el orden de preferencia de adjudicación elegido por la persona.

2.- Ikastetxe berean edo hainbat ikastetxetan plaza bat baino gehiago eskatuz gero, eskatzaileak hautatzen duen esleitzeko lehenespen-ordenaren arabera zerrendatuko da eskaera bakoitza.



3.- Todas las plazas las solicitará en un único formulario de solicitud que las dirigirá al centro docente elegido en primer lugar.

4.- Al hacer la solicitud deberá indicar:
a) La vía de acceso utilizada de entre las señaladas en la Orden. Se entiende por vía de acceso, el requisito o condición cuyo cumplimiento se hace valer para el acceso.

b) En el caso de que cumpla los requisitos para acceder por más de una vía de acceso, solo podrá ejercer una de ellas. No obstante, si al realizar la solicitud a ciclos de grado medio o grado superior, indica que accede a través de una prueba de acceso, en caso de obtener un requisito académico antes de la fecha de la publicación de la relación provisional de solicitantes de cualquier período de solicitudes, deberá comunicar la adquisición de dicho requisito en el centro educativo donde presentó su solicitud para proceder al cambio de la vía de acceso.

c) Si opta a las reservas por discapacidad o por deportista de alto nivel o alto rendimiento, se atenderá a lo establecido en la Orden.

d) En el caso de tener necesidades educativas especiales, a efectos de los apoyos especiales que pudiera necesitar, deberá poner esta circunstancia en conocimiento del centro.

5.- Al hacer la solicitud, el solicitante debe acreditar un expediente académico adecuado a los estudios que desea cursar ([requisitos acceso formación profesional](#))

6.- Si el expediente académico que acredita ya consta en el Sistema Informático del Departamento de Educación, no será preciso aportarlo

7.- Si en el momento de hacer la solicitud no dispone de expediente académico, dispone de fechas adicionales para entregarla en el Centro donde hizo la solicitud. ([calendario 2017](#))

8.- La aplicación informática del Departamento de Educación asignará plazas en cada aula a los solicitantes que tengan la mejor baremación, respetando las **cuotas y prioridades** de adjudicación establecidas por la Normativa, se pueden consultar cada una en su apartado inferior correspondiente.

9.- Si el número de solicitudes admitidas es mayor al de plazas libres, se agruparán diferenciando las que optan a las reservas de discapacidad o de deportista de alto nivel o de alto rendimiento, de las que no ejercen tal opción, y dentro de ellas se agruparán, por curso y ciclo. Los grupos de solicitantes se realizarán atendiendo a los colectivos con preferencia y dentro de ellas por el orden de prelación.

10.- Siempre que resulte acreditado el cumplimiento de los requisitos de acceso, la no presentación de alguno de los documentos que dan derecho a prelación no anula la validez de la solicitud pero dará lugar a la pérdida de la prelación que le hubiera podido corresponder.

11.- Una vez adjudicadas las plazas y resueltas las posibles reclamaciones, cada solicitante dispone de un período para matricularse en la plaza que le ha correspondido, [calendario 2017](#). Si no lo hace dentro de dicho plazo pierde todo derecho a su plaza y a cualquiera de las otras opciones que solicitó

12.- La matrícula definitiva queda condicionada a que se alcance el número mínimo de personas para configurar un grupo

13.- A la persona que haya obtenido plaza se le reservará la misma hasta el último día establecido en la Orden para la formalización de la matrícula. Transcurrida esa fecha pierde el derecho a la plaza y el Centro podrá matricular a otra persona en su lugar.

GLOSARIO DE TÉRMINOS

Orden de preferencia: otorga prelación absoluta sobre el colectivo posterior. La asignación de preferencia significa que las plazas se adjudicarán a dicha preferencia con anterioridad a las siguientes con el límite del porcentaje o cuota de plazas que, en su caso, se señale.

Orden de prelación: relaciona la mejor posición para obtener la plaza dentro de cada colectivo preferente, cuando lo haya o, en su defecto, dentro de todas las personas solicitantes.

Vía de acceso: el requisito o condición cuyo cumplimiento se hace valer para el acceso.

3.- Eskabide-inprimaki bakarrean eskatuko ditu plaza guztiak, eta eskabide hori lehenik hautatu den ikastetxeari bideratuko zaio.

4.- Eskaera egitean, hau adierazi beharko du:
a) Erabilitako sarbidea, Aginduan adierazitakoen artean. Sarbide delakoa hau da: sartzeko bete behar den eskakizuna edo baldintza.

b) Sarbide bat baino gehiago erabiliz sartzeko baldintzak betetzen baditu, bakarra aukeratu ahalko du. Hala ere, erdi-mailako edo goi-mailako zikloetarako eskabidea egin duen pertsonak eskabidean sarbide proba baten bidez sartzeko dela adierazi badu eta eskabideak aurkezteko edozein aldiri dagokion eskatzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzen den data baino lehenago beste baldintza akademikoren bat betetzen badu, baldintza hori betetzen duela jakinarazi beharko du eskabidea aurkeztu zuen ikastetxean, sarbide-mota aldatzeko.

c) Ezintasunen bat duten pertsonentzat eta goi-mailako errendimendu handiko kirolarientzat erreserbatutako bat hautatzen badu, Aginduan xedatutakoa beteko du.

d) Hezkuntzako beharizan bereziak izanez gero, horren berri eman beharko du ikastetxean, behar duen laguntza berezia eman ahal izateko.

5.- Eskaera egiterakoan, egin nahi dituen ikasketei egokitutako ikasketak-espediente duela egiaztatuta behar du eskatzaileak ([lanbide-heziketara sartzeko baldintzak](#))

6.- Egiaztatzen duen ikasketak-espediente jadanik Hezkuntza Sailaren Sistema Informatikoan badago, ez du aurkeztu beharrik izango.

7.- Eskaera egiterakoan ikasketak-espedienterik ez badu, egun gehigarri batzuk izango ditu eskabidea egin duen zentroan espediente hori aurkezteko. ([2017ko egutegia](#))

8.- Hezkuntza Sailaren aplikazio informatikoak plazak esleitu ditzkie ikasgela bakoitzean baremazio handiena dutenei, arautegian ezarritako **esleipen-kuotak eta lehentasunak** errespetatuz, bakoitzak dagozkion beheko ataletan kontsulta daitezke.

9.- Onartutako eskabide kopuruak libre dagoen plaza kopurua gainditzen badu, bi taldetan banatuko dira eskabideak, ezintasunen bat duten pertsonentzat edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat erreserbatutako plazak eskatu dituztenak eta plaza horiek aukeratu ez dituztenak bereiziz. Horren ondoren, mailaren eta zikloaren arabera bereiziko dira. Lehentasuna duten kolektiboak errespetatuz egingo dira eskatzaileen taldeak eta talde horien barruan hurrenkeraren arabera banatuko dira.

10.- Sartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatuta geratzen den guztietan, zerrendetan sartzeko eskubidea ematen duen dokumentuetako bat aurkeztzen ez bada ere, ez da eskabidea ezeztatuko, baina zerrenda horretan izan zezakeen hurrenkera aldatu ahalko da.

11.- Plazak esleitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, eskatzaile bakoitzak epe bat izango du egokitu zaion plazan matrikulatzeko. ([2017ko egutegia](#)) Epe horren barruan matrikulatzen ez bada, bere plazarako eta eskatutako beste aukerarako eskubidea galduko du.

12.- Behin betiko matrikula gauzatu ahal izateko, beharrezkoa izango da taldea osatzeko gutxienezko kopurua lortzea.

13.- Plaza eskuratu duenari matrikula formalizatzeko ezarritako azken egunera arte erreserbatuko zaio plaza. Egun hori igarota, plaza-eskubidea galduko du, eta ikastetxeak beste norbait matrikulatu ahal izango du haren ordez.

TERMINOEN GLOSARIOA

Lehenespen-ordena: lehentasun osoa ematen du, ondorengo kolektiboaren aurretik. Lehentasunezko esleipena egiteak esan nahi du plazak lehentasun horren arabera esleitu direla gainerakoen aurretik, kasu bakoitzean adierazitako plazen ehunekoak mugatuta.

Lehentasan-ordena: lehentasunezko kolektibo bakoitzaren barruan edo, hori ez badago, eskatzaile guztien artean, plaza lortzeko posturik onena adierazten du..

Sarbidea: sartzeko bete behar den eskakizuna edo baldintza.



Requisitos de Acceso a FP - LHko Sarbideko Baldintzak

FP Básica

Se deben cumplir **todos** los requisitos siguientes:

- Tener cumplidos quince años, o cumplirlos durante el año natural en curso, y no superar los diecisiete años de edad en el momento del acceso o durante el año natural en curso
- Haber cursado el tercer curso de Educación Secundaria Obligatoria o, excepcionalmente, haber cursado el segundo curso de la Educación Secundaria Obligatoria.
- Haber propuesto el equipo docente a los padres, madres o tutores legales la incorporación del alumno o alumna a un ciclo de Formación Profesional Básica.

Ciclo Formativo de Grado Medio

Se requiere alguna de las siguientes condiciones:

1. Estar en posesión de alguno de los siguientes títulos:
 - Título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria
 - Título Profesional Básico.
 - Título de Bachiller.
 - Título universitario.
 - Título de Técnico o de Técnico Superior de Formación Profesional.
2. Haber superado:
 - Los módulos obligatorios de un Programa de Cualificación Profesional Inicial.
 - Curso de formación específico para el acceso a ciclos de grado medio en centros públicos o privados autorizados por la administración educativa, y tener 17 años cumplidos en el año de finalización del curso.
 - Prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio o de Grado Superior o prueba de acceso a la universidad para mayores de 25 años.
 - Segundo curso de BUP con un máximo de 2 asignaturas pendientes.
 - Segundo curso del primer ciclo de REM.
 - COU o PREU.
 - De las enseñanzas de Artes Aplicadas y Oficios Artísticos, el tercer curso del plan de 1963, o el segundo de comunes experimental.

Además, siempre que la demanda de plazas en Ciclos Formativos de Grado Medio supere la oferta, las Administraciones Educativas podrán establecer [Cuotas y Preferencias de Admisión](#) al centro docente.

Ciclo Formativo de Grado Superior

Se requiere alguna de las siguientes condiciones:

1. Estar en posesión de alguno de los siguientes títulos:
 - Título de Bachiller.
 - Título universitario.
 - Título de Técnico o de Técnico Superior de Formación Profesional o de Técnico Especialista.
 - Título de BUP.
2. Haber superado:
 - Segundo curso de cualquier modalidad de Bachiller Experimental.
 - COU o PREU.
 - Prueba de acceso a Ciclos Formativos de Grado Superior.
 - Prueba de acceso Universidad para mayores de 25 años.

Siempre que la demanda de plazas en Ciclos Formativos de Grado Superior supere la oferta, las Administraciones Educativas podrán establecer [Cuotas y Preferencias de Admisión](#) al centro docente.

Oinarrizko Lanbide Heziketa

Baldintza hauek **guztiak** bete behar dira:

- Hamabost urte beteak izatea, edo dagokion urte naturalaren barruan betetzea, eta hamazazpi urte baino gehiago ez izatea zikloan sartzean edo dagokion urte naturalean.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren ikasturtea edo, salbuespen gisa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ikasturtea eginda izatea.
- Irakasle-taldeak gurasoei edo legezko ordezkariari Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat hastea proposatu izana.

Erdi-Mailako Heziketa-Zikloa

Baldintza hauetako bat bete beharko da:

1. Gutxienez titulu hauetako bat izatea:
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
 - Oinarrizko lanbide-titulua.
 - Batxilergoko titulua.
 - Unibertsitateko titulua.
 - Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua.
2. Gainditu izana:
 - Hasierako Lanbide Kualifikazioaren Programa baten derrigorrezko moduluak.
 - Hezkuntza Administrazioak baimendutako ikastetxe publiko eta pribatuetan Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak egin ahal izateko berariazko prestakuntza-ikastaro bat.
 - Erdi- edo Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko proba edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.
 - Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko lehen bi mailen multzoan gehienez ere bi ikasgai gainditu gabe.
 - Ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila.
 - Unibertsitate-orientazioko edo unibertsitate aurreko kurtsoa.
 - Arte Aplikatuaren eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetatik 1963ko planeko hirugarren maila edo komunaren bigarren maila esperimentalak.

Gainera, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloetarako plaza-eskaera eskaintza baino handiagoa bada, Hezkuntza-Administrazioek ikastetxean [Onarpeneko Kupo eta Lehentasunak](#) ezarri ahalko dituzte.

Goi-Mailako Heziketa-Zikloa

Baldintza hauetako bat bete beharko da:

1. Gutxienez titulu hauetako bat izatea:
 - Batxilergoko titulua.
 - Unibertsitateko titulua.
 - Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari edo Teknikari Especialista titulua.
 - Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko (BBB) titulua.
2. Gainditu izana:
 - Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateko bigarren maila.
 - Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko proba.
 - Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.
 - UZI edo PREU.

Goi-Mailako Heziketa-Zikloetarako plaza-eskaera eskaintza baino handiagoa bada, Hezkuntza-Administrazioek ikastetxean [Onarpeneko Kupo eta Lehentasunak](#) ezarri ahalko dituzte.



Cuotas y Preferencias de Admisión a FP Grado Medio – Erdi Mailako LHri Onarpeneko Kupo eta Lehetasunak

Del total de plazas ofertadas en cada Ciclo Formativo se reservará un 5% para personas con discapacidad igual o superior al 33% en la fecha de la solicitud y otro 5% para los y las deportistas que en la fecha de la solicitud tengan la condición de deportista de alto nivel o de alto rendimiento a que se refieren el Real Decreto 971/2007 y el Decreto 203/2010

El resto de plazas disponibles para estudiar un **Ciclo de Grado Medio** se desglosan de la siguiente manera:

1. 65% para quienes tengan el título de ESO.
2. 20% de plazas para quienes estén en posesión del título de Formación Profesional Básica.
3. 15% plazas para quienes:
 1. Accedan por prueba de acceso a Grado Medio o a Superior.
 2. Accedan por lo establecido en el RD 1147/2011, *ver más abajo*.
 3. Accedan por tener superados los módulos profesionales obligatorios de PCPI.
 4. Accedan por prueba de acceso a la Universidad para mayores de 25 años.
 5. Otras vías de acceso (Tener superado el curso específico de formación para acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio).

Ordenación y Baremación

Para las plazas del **grupo a**, tendrán preferencia las personas que presenten el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria y hayan superado cuarto de Educación Secundaria Obligatoria, *en alguno de los dos cursos académicos anteriores* al curso que se opta en el presente proceso de admisión. Para delimitar quiénes obtienen plaza y quiénes no, tras establecerse la prioridad, se ordenarán los solicitantes según la nota de su expediente académico.

Para las plazas del **grupo b**, se dará prioridad a quienes tienen **afinidad I** entre el título de FP Básica que acreditan y el título que desean cursar.

Entre quienes no tengan afinidad I, se les asigna preferencia a quienes acreditan **afinidad II** entre los títulos acreditado y el que desean cursar.

Listado de afinidades.

Dentro de cada grupo de prioridad, se ordenan los solicitantes según la nota que figura en su Expediente académico

Para aspirar a las plazas del **grupo c**, tienen prioridad quienes estén en el apartado c.I, después los del apartado c.II, a continuación los del c.III y así sucesivamente. Dentro de los del c.I, están antes los de prueba de acceso de Grado Medio frente a los de prueba de acceso a Grado Superior.

Dentro de cada grupo de prioridad, los solicitantes son ordenados según la nota que figura en su expediente académico.

Titulaciones o requisitos establecidos en el RD 1147/2011 y que forman parte del punto cII

- Estar en posesión del título de Técnico o de Técnico Auxiliar.
- Estar en posesión del título de Bachiller superior.
- Haber superado el segundo curso del primer ciclo experimental de reforma de las enseñanzas medias.
- Haber superado el curso de formación específica de acceso a ciclos de grado medio autorizado por una Admisitración Educativa
- Haber superado, de las enseñanzas de Artes Aplicadas y Oficios Artísticos, el tercer curso del plan de 1963 o el segundo de comunes experimental.
- Acreditar tener un máximo de dos materias pendientes en el conjunto de los dos primeros cursos del Bachillerato Unificado y Polivalente.
- Tener alguna de las titulaciones equivalentes para el acceso a los ciclos formativos de grado superior, consultar en el siguiente apartado "[Cuotas y Preferencias de Admisión a FP Grado Superior](#)".
- Haber superado otros estudios o cursos de formación de los declarados equivalentes a efectos académicos con alguno de los anteriores.

Otras vías de acceso

- Curso específico de formación para acceso a Ciclos Formativos de Grado Medio.

Heziketa-Ziklo bakoitzean eskaintzen den guztizko plaza kopuruaren % 5 eskaera egiten den datan % 33 edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonentzat erreserbatu beharko da eta beste % 5 eskaera egiten den datan goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat, 971/2007 Errege Dekretuan eta 203/2010 Dekretuan adierazitakoari jarraituz **Erdi Mailako Heziketa-Ziklo** bat ikasteko gainerako plazak betetzeko honako era honetan banakatzen dira:

1. % 65 DBHko titulua dutenentzat.
2. plazen % 20 Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua dutenentzat.
3. plazen % 15 honako hauentzat:
 1. Erdi Mailarako edo Goi Mailarako sarrera-proba bidez sartzen direnentzat.
 2. 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren bidez sartzen direnentzat, *ikus beheagoan*.
 3. HLPPko derrigorrezko lanbide-moduluak gaindituta izateagatik sartzen direnentzat.
 4. 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitatean sartzeko probaren bidez sartzen direnentzat.
 5. Beste sarbide batzuk (Erdi-Mailako Heziketa-Zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaro berezia gainditu izana)

Ordenazioa eta Baremazioa

a taldeko plazentzat, lehetasuna izango dute onarpen-prozesu honetan hautatzen den kursoaren *aurreko bi ikasturteetako batean* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua aurkezten duten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila gainditu duten pertsonak.

Plaza nork lortzen duen eta nork ez mugatzeko, lehetasuna ezarri ondoren, eskatzaileak beren ikasketa-espeditenteko notaren arabera ordenatuko dira.

b taldeko plazetarako, lehetasuna emango zaie egiaztatzen duten Oinarrizko LHko tituluaren eta ikasi nahi duten tituluaren artean **I. afinitatea** dutenei. I. afinitatea ez dutenen artean, lehetasuna esleitzen zaie egiaztatuta duten tituluaren eta ikasi nahi duten tituluaren artean **II. afinitatea** dutenei. [Afinitateen zerrenda](#).

Lehetasun-talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak beren ikasketa-espeditentean agertzen den notaren arabera ordenatzen dira.

c taldeko plazak lortzeko, lehetasuna dute c.I atalean daudenei, ondoren c.II atalean daudenei, gero c.III atalean daudenei eta horrela hurrenez hurren. c.I atalekoen artean, lehenago daude Erdi Mailarako sarrera-proba gainditu dutenak Goi Mailarako sarrera-proba gainditu dutenak baino.

Lehetasun-talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak beren ikasketa-espeditentean agertzen den notaren arabera ordenatzen dira.

[Titulazioak edo eskakizunak 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritakoak eta cII puntuko parte hartzen direnak](#)

Teknikari Laguntzaile titulua izatea.

- Teknikari titulua izatea.
- Goi-mailako Batxilergo-titulua izatea.
- Irakaskuntza ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila gainditu izana.
- Arte Aplikatu eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetatik 1963ko planeko hirugarren maila edo komun bigarren maila esperimentala gainditu izana.
- Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko lehen bi mailen multzoan gehienez ere bi ikasgai gainditu gabe dituela frogatzea.
- Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko titulazio baliokideetakoaren bat izatea, ikus hurrengo atalean "[Goi Mailako LHri Onarpeneko Kupo eta Lehetasunak](#)".
- Ondorio akademikoetarako aurreko tituluren batekiko baliokidetzat deklaratuak izan diren beste ikasketa edo prestakuntza-ikastaroren bat gainditu izana

Beste sarbide batzuk

- Erdi-Mailako Heziketa-Zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaro berezia



Cuotas y Preferencias de Admisión a FP Grado Superior

Del total de plazas ofertadas en cada ciclo formativo se reservará un 5% para personas con discapacidad igual o superior al 33% en la fecha de la solicitud y otro 5% para los y las deportistas que en la fecha de la solicitud tengan la condición de deportista de alto nivel o de alto rendimiento a que se refieren el Real Decreto 971/2007 y el Decreto 203/2010

El resto de plazas disponibles para estudiar un **Ciclo de Grado Superior** se desglosan de la siguiente manera:

1. 60% para quienes tengan el título de Bachiller
2. 20% de plazas para quienes tengan el título de Técnico
3. 20% plazas para quienes
 1. Accedan por prueba de acceso por la opción correspondiente
 2. Accedan por lo establecido en el RD 1147/2011, *ver más abajo*.
 3. Accedan por prueba de acceso a la Universidad para mayores de 25 años
 4. Accedan desde otro título de Técnico Superior de Formación Profesional
 5. Accedan desde un título universitario
 6. Otras vías de acceso

Ordenación y Baremación

Para las plazas del **grupo a**, se prioriza a quienes tienen la [modalidad de Bachiller prescrita en el título que se desea cursar](#) y, en su caso, a quienes han superado la asignatura que se menciona en el título.

Para delimitar quiénes obtienen plaza y quiénes no, tras establecerse la prioridad, se ordenarán los solicitantes según la nota de su expediente académico

Para las plazas del **grupo b**, se dará prioridad a quienes tienen **afinidad I** entre el título de Grado Medio que acreditan y el título que desean cursar. A los solicitantes restantes se les asigna preferencia a quienes acreditan **afinidad II** entre los títulos acreditado y el que desean cursar. [Listado de afinidades](#).

Dentro de cada grupo de prioridad, se ordenan los solicitantes según la nota que figura en su Expediente académico

Para aspirar a las plazas del **grupo c**, tienen prioridad quienes estén en el apartado c.1, después los del apartado c.2, y así sucesivamente, y por último los del c.6

Dentro de cada grupo de prioridad, los solicitantes son ordenados según la nota que figura en su expediente académico.

Titulaciones o requisitos establecidos en el RD 1147/2011 a efectos del punto c2

- Haber superado el segundo curso de cualquier modalidad de Bachillerato Experimental.
- Haber superado el curso de orientación universitaria o preuniversitario.

Otras vías de acceso

- Título de BUP

